BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5274

EBAZPENA, 2011ko irailaren 30ekoa, Bulego Judizial eta Fiskalaren zuzendariarena, Gernikako barruti judizialeko Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Betearazpenekoa funtzionamenduan jartzeko eguna ezartzeko dena.

Gernikako barruti judizialeko Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Betearazpenekoa sortzen duen 2011ko otsailaren 7ko Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren Aginduaren azken xedapenetako lehenengoaren arabera, zerbitzu hau funtzionamenduan jarriko da behin barruti judizialeko langileen akoplatzeko prozesua bukatuta.

Akoplatzeko prozedura 2011ko irailaren 14ko Ebazpenaren bitartez itxi ondoren, honako hau,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Gernikako barruti judizialaren Zerbitzu Erkide Prozesal Orokorra eta Betearazpenekoa funtzionamenduan jartzeko eguna 2011ko urriaren 13a ezartzea.

Bigarrena.– Ebazpen honek ez du administrazio-bidea agortzen. Eta, beraz, horren aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Justiziako sailburuordeari, ebazpena Eusko Jaurlaritzako Intraneten –Justizia Administraziorakoan– argitaratu eta hilabeteko epean.

Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez onartutzat hartuko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 30a.

Bulego Judizial eta Fiskaleko zuzendaria,
ROSA GÓMEZ ÁLVAREZ.